



GILTZURRUN GAINEKO AZALEKO GAMMAGRAFIA DEXAMETASONA BIDEZKO EZABAKETA

MEDIKUNTZA NUKLEARRA

ZER DA GILTZURRUN GAINEKO AZALEKO GAMMAGRAFIA?

Giltzurrun gaineko guruinen funtzioaren alterazioak bistartzeko azterketa bat da.

PROBA EGITEKO EGUNA:

Ez dago zertan baraurik egon.

ZERTAN DATZA?

Lehenbiziko egunean, erradiofarmakoa injektatu besterik ez dizugu egingo. Aurrez, odola aterako dizugu analisisia egiteko.

Irudiak ez dira egunean bertan lortzen; beraz, Medikuntza Nuklearreko Zerbitzura joan beharko duzu jakinaraziko dizkizugun egunetan eta orduetan.

Paziente heldu batek miaketa horretan jasotzen duen erradiazio estimatua toraxeko 3600 erradiografia sinpleren eta erradiazio naturalaren 30 urteko gutxi gorabeherako aldi baliokide baten baliokidea da.

Baliteke sabelaldeko azterketa erradiologiko bat egitea ordenagailu bidezko tomografiaren bidez (OT). Jasotako erradiazioa Medikuntza Nuklearreko miaketari gehituko zaio, datu hauen arabera:

<i>Miaketa</i>	<i>Dosi eraginkorra (mSv)</i>	<i>Torax-plaken baliokidea</i>	<i>Erradiazio naturalaren baliokidea</i>
<i>Sabelaldeko-pelbiseko OT</i>	10	500	4,5 urte

PAZIENTEAREN AURRETIKO PRESTAKETA:

Badira zenbait farmako azterketaren emaitza alda dezaketenak; beraz, zer medikazio hartzen ari zaren jakinarazi behar diguzu.

Proba egin baino astebete lehenago, tratamendu batekin hasi beharko duzu. Medikuntza Nuklearreko profesionalak jakinaraziko dizute zer dosi eta noiz hartu beharko duzun.

Halaber, iodo-prestakin baten tanta batzuk hartu beharko dituzu proba egin baino egun batzuk lehenagotik proba egin eta zenbait egun igaro arte.

OHARTARAZPENAK

Proba hau kontraindikaturik dago haurdun dauden emakumeentzat.

Bularra emateko aldian badago, eten egingo du Fisika Medikoko espezialistak ezartzen duen denboran.

Medikuak betetzeko:

Farmakoren bat ezabatu baldin bada, jakinarazi farmakoaren izena eta kentze-data:

Dexametasona bidezko ezabaketaren prozesua egitea eragozten duen arazo klinikorik ezagutzen duzu?

Potasio ioduroa ematea eragozten duen arazo klinikorik ezagutzen duzu?
